

**DONOSTIAKO SAN ANTONIO ABAD  
OSPITALAREN SORRERA**

José María Urkia Etxabe, Irakaslea

Betidanik, Donostiako Ospitale Zibila San Antonio Abad deritzana izan zen. Egin dezagun denboran zehar gertaturikoaren kronika zehatz bat, 1888 inguruan Manteoko Ospitalea martxan jartzen den unean geldituko garelarik.

San Antonio Abad Ospitalea sortzen den data ezezaguna da. Karlos III. Erregeak 1787.ean, XVIII mendearen bukaeran, emandako Estatuto edo Konstituzioak gordetzen dira; bertan jasotzen dira Ospitaleko arautegiak, hitzez hitz sarreran irakur daiteke ondorengo hau:

“Txit Noblea eta Leiala den Donostiako hiriak, bere D. Antonio Abade Ospitalaren patroi bakarrak, Kongresu ezberdinetan egon diren zenbait burutapen eta hausnarketa ondoren, Ospitalea mantentzea eta bere egoera hobetzea adierazi du, eta emaitzarik gabe ahaleginak egin ondoren gobernatzeko zeuden konstituzioak aurkitzeko, badirudi eta ez zirela inoiz inprimatuak izan eta eskuz esku pasatzen zirelarik, horietako administrari baten etxean gera zitezkeen, hauexek ematen bait zioten urtero hiriarri Ospitaleak jasotzen zituen kopuruen berri...”

Antza denez, bazegoen hirian, mendeak zirela, arautegi ezezagun batez gidatzen zen Ospitale bat. Ospitale hau, 1538.ean Dona Katalina Parrokia ondoan eraikitzen da, hesiz kanpoko, haietatik 480 urratsetara. Eustorez eta ez hargintzaz eraikitzea agindu zuen Juana Andrea Erreginak, plazaren defentsarako beharrezkoa gertatzen zen momentuan, erraztasunez eraitsia izan zedin, hala gertatu zelarik 1719.ean, Berwick'eko Dukeak agintzen zuen frantziar armadak Ospitalea eta Dona Katalina Parrokia suntsitu zituenean. Datu hauek ezagunak dira, 1802.eko Historia Akademia Errealaren Geografi-Historiko Hiztegian agertzen direlako. Serapio Mujika Jaunak bere kalegida ospetsuan datu hauek baieztatzen ditu, azpimarratuz Ospitale Zibila eta Dona Katalina Parrokia elkarren ondoan zeudela, eta alderdi hori gaur egun Dona Katalina Kalea ingurua litzatekela. Beraz, 1538.etik 1719.era Done Antonio Abade Ospitalea, gaur egungo Dona Katalina alderdian zegoen finkaturik. Dena den, ez ditugu ezagutzen Ospitalea zuzentzen zuten arauak, 1787.ean ordenantza berri batzu ezartzen dituzten arte, Salamanca'ko eta Iruñakoaren ereduak jarraituz. Ordenantza horiek laburtuz, dauzkagun zaharrenak, esan dezakegu: Ospitalea Karlos III. Erregearen babespean jartzen dela, izena matentzen duela, eta Donos-

tiako hiria dela jabe bakarra, bere gorbenuan ez duelarik parte hartzen inolako eliz-agintaririk ez epaile sekularrik. Ospitalea, sei pertsonaz osaturiko Batzarre batek zuzentzen du, Ospitaleko Administrazioak bezala ezagutuak. Batzarrea, urtean behin, hiriko Udaletxeko Kongresu orokor batean izendatzen zen, Alkatea buru zela, eta hiritar guztiek parte hartzen zutelarik.

Ospitalean lan egiten zuten sendagile eta kirurgilariak eta Udaletxearen kontratuz hiriaren zerbitzurako zeudenak, berdinak ziren. Seuraski kontratu horretan zegoen klausula baten bidez behartzen zituzten Ospitaleko lana egitera; txandaka egiten zuten hilean behin. Ospitaleko barne funtzionamenduan pertsonai garrantzitsua “ama económica” deritzana zen. Berak, zenbait erizain eta zerbitzarien laguntzaz, gaixoak zaintzen zituen. Ospitalean sartzeko, gaixoari sendagilearen parte eskatzen zitzaion, bertan azaldu behar zutelarik sintomak e.a. Administrazioari zeraman erregistro liburu batean idazten ziren gaixoen sarrera datak, altak, eta heriotze kasutan, hildakoa lurperatua non izan zen ere. Arautegiko erregelak oso xeheak dira, gaixoen herri lekualdatzeak egiteko modua, gaixo bakoitzak zeuzkan tresna zenbakidunak, e.a. zehazten ziren; logelen orde, ikuluz mintzatzen da. “Ama económica”-k sendagilearekin egiten zituen ikustaldiak eta gaixo bakoitzaren berri ematen zion, eta “norbaitek gaixotasun likatsua balu, alda zezan beste ikulu batetara”. Amak kurioski zaintzen zituen bere ardurapean zeuden zerbitzariak, beraiekin birpatsatzen zuen kristau dotrina, arretaz zaintzen zuen hilabetean behin aitor zitezten txandaka bidaltzen zituelarik inguruko elizetara, beti gaixoen zaintzearako kalterik gabe.

Hau, 1787.eko azaroako Kongresu Orokorrean onartu ziren arautegien laburpen bat litzateke. Onarpen bilera horretara joan zirenen artean, aipa daiteke Lardizabaleko Vicente Jaunaren izena, Donostiako mediku ospetsua halaber Karakaseko Kompainiaren zerbitzuan. Erantsi behar dut Ospitalean onartzen zirela hiriko eta bere inguruko gaixo noharroi guztiak eta baita beste hiri edo herri batekoa izan arren, hiri horretan zegoela gaixorik edo ondoezik jartzen zen guztiari ere. Ezinbestekoa zenean, gaixoari etxean begiratzen zitzaion. Ekonomikoki, ongileek egiten zituzten eskerari esker jarraitzen zuen.

Utzri dugu Ospitalea 1719.ean suntsitua, Dona Katalina Parrokia alderditik, eta gero, non lekutu zen? 1802.eko Hiztegiak dioena ondorengoak dakigu:

“Done Antonio Abade Ospitalea, desagertutako konpainiarena izan zen Ikastetxean kokatua, Antonio Okendo Jaunak eta Lazkaoko Maria Andreak fundatua. Ospitale hau, 1769.eko Probizio Errealez sasikumeen etxe izateko asmokoa, hauzotar noble batzuren batzarrak zuzendua, ondasun gutxikoa izan arren, itxura onean mantentzen da herriaren limosna anitzi esker.

Beraz, Jesusen Konpainia kanporatua izan zenean, Karlos III.en agintapean, Ospitaleak eraikuntza hori hartuko du. Gaztelu mendipean zegoen, eta bertara iritsi zitekeen abuztuaren 31. kaleko, lehen Trinidad, 40. eta 42. zenbakiko etxeen artean dagoen kaletarte igoz. Geroago beste eraikuntza batetara aldatu zuten: Juan de Bilbao kaleko 12. zenbakira, 1813.eko sutean suntsitua gertatu zelarik.

Baina, utz dezagun orain Ospitale hau une batez leku horretan, 1813.a baino lehen, geroago itzuliko bait gara zoritxarreko data honetara, eta orain iker ditzagun garai hartan, honetaz kanpo zeuden beste ospitale batzuek.

Horregatik joango gara Done Martin auzoaz hitz egitera, non aurkitzen bait dira zenbait ongintzetxe. Lehenengo Done Lazaro deritzan Ospitalea,

hemen onartzen zirelako San Lazaro gaixotasuna zutenak. San Martingo auzoko hareatzen zegoen Urdinzoko etxaldearen nagusiak eraiki zuen. Ospitale hau 1512.ean erre zen, Borbon Dukeak babesiria hartu zuenean. Juana Andere Erreginak, urte batzu geroago auzo berean beste Ospitale bat eraikitzea nahi izan zuen, baina eraiki zen ezaguna zaigun Santa Katalinako Done Antonio Abade Ospitalea.

San Martingo auzoan ere Misericordia zegoen, 1714.ean Felipe V.aren Zedula Erreal batez sortua. Ordoñez Apezak instituzio honen describapen bikain bat ematen digu, 1761.eko hiriaren Deskripzio batean. Horrela dio:

“Gaztelaruntzeko Lur-Atetik irteteen, bi fusil tirokada bat urrunera, Misericordiako Ospitalea dago; bidea erditik doa, eskuinetara Misericordia dago eta ezkerretara San Martin auzoa, hirurogei etxe duena, batzu oso onak balkoi eta guzti, denak nekazarienak dira. Badago larru-ondo lantegi on bat, eta kainamo soka egileak ere, ez dago eliarik, eta badirudi auzoak hartu duela izena Ospitaleko kapelan dagoen Done Martin batengatik. Misericordiako Ospitalean hiru egunez egon daitezke kanpotarrak; limosna eta horrelakoei esker aurrera doa; ez du kapelaurik; badago kirurgilaria, sendagilea eta zenbait zerbitzari; botika dohain, hiru botikari daude eta, batak urte erdian hornitzen du Ospitalea eta beste biek beste erdian. Gaixo eta elbarrituez gain, han egoten dira ere ume behartsuak eta babesgabeak, hil arte. Neska-mutikoei irakaskuntza ematen zaie eta marinerian kokatzen saiatzen dira, Ospitalentzat izango delarik lehenengo bidain irabazitakoa. Orotara 130 bat pertsona dago.”

Hiriko Ospitaleen zerrenda hau jarraituz, 1802.go Hiztegiaren bidez dakigu 1592.go Felipe II.ren Zedula Erreal dela eta, bazegoela Donostian Erromes Ospitale bat, non bere aginduaz onartu behar bait ziren armadako gaixoak; honez gain bazegoen Ospitale militarra, lehen aipaturiko Hiztegiaren irakur bait daiteke ondorengo hau:

“Gudagizonak badaukate bereziki Ospitale bat beraientzat munizio gordeleku ondoan.”

## MILITAR OSPITALEA

Mota honetako Ospitale baten izateari buruz, lehenengo berri, aurreko orrialdean aipatua, 1802.eko Hiztegiaren aurki daiteke. Geroago ez dugu aipamen berririk topatu balio handiko bat arte. Hau da, 1826.eanean sendagile batek, Arruti-ko Eugenio Francisco Doktoreak egina, Donostiako Deskripzio batea, “Descripción topográfico médica de la ciudad de San Sebastián” izeneko. Arruti Doktoreak dio, militar Ospitalea garai batean San Franzizko kontentuan zegoela “erlijiosoen kalte handirako”, badio ere eraikuntza hori ez zela egokia, zeren eta: “hiritik tardealde itzela egotez gain, Urumea ibai gainetik dagoen zubitik eraman behar izaten dituzte gaixoak, toki guztiz hotza eta haizetsua delarik”. 1826.ean, lehen espetxea zegoen eraikuntza hartuko du militar Ospitaleak, Arruti Jaunak honela deskribatzen du:

“Leku iluna eta aireaketa gutxikoa; gainera, kaltegarria izan daiteke huzoarentzat tifus duten gaixoak biltzen badira, kalte nagusi baten erdian bait dago. Ezbehar hau gerta liteke, pake garaian 1.200 gizon eta gerra denboran are gehiago egoten den babesirian.”

Arruti Doktoreak Ospitalearen lekutasunari buruzko erizpide ezkor hau bukatzeko, Gobernuari aholkatzen dio horrelako Ospitale bat eraiki dezan: hauzoari kalte egin ez diezaion eta gaixoentzat komenigarria izan dadin leku egoki eta osasuntsu batean.

Suposatzen dugu, 1826.ean Ospitalea lehen espetxea zen etxean zegoela. Espetxe zibila lehendabizi Okendoko Dorretxe aurrean, Santa Mariako Kanpandorrea zegoela, Serapio Mujikagatik dakigu, eta ondoren Konpainiaren etxe batetara, abuztuaren 31 kalean, Ospitale zibila eta beste militar etxe batzu zeuden tokira aldatu zela. Horrez gain, Preboste espetxea izan zen, Narrika eta Enbeltranen arteko kalegurutzean, gaur egun, Sarriegi Plaza dena.

Denboran zehar, Militar Ospitalaren arrastoa jarraituz, Pascual Madoz-en Hiztegian, 1848.ekoa, berari buruz nahiko aipamen luzea egiten da. Madoz-ek, Donostia babeshiri armatua izanik ez izatea Militar Ospitale bat bere esparruan gaitzesten du. Gabezia hori dela eta, guda garaitan etxe zibilak hutsarazi behar izaten direla “bortxaz eta presaka, Ospitaletan bihurtzeko”, dio Madoz-ek, eta eransten du: “Gaur egun, Ospitaletzat erabiltzen den eraikuntza, hiriaren mendebaldean lekutzen da. Lonja edo aduana bezala erabiltzen zen etxe pribatu bat zen. Bi areto handi dauzka, bata solairu nagusian, eta bestea bigarrenean. Etxearen aurrekaldeak ekialderuntz ematen du eta bost leiho ditu; beste hiru leiho daude mendebalderuntz dagoen alderdian, honek itsadar ederrari begiratzen diolarik eta beste hiru leiho, hegoaldekoan”. Ikus daitekeenez, Militar Ospitaletzat erabiltzen den edifizio batetaz ari gara. Barrukaldean, luzeraz larogei oin eta zabaleraz hirurogeitamabi, ditu areto bakoitzak. Sapaiek hamalau oineko garaiera dute. Bigarren solairuan, medikuntza orokorreko gai-xoak ipintzen ziren, eta solairu printzipalean kirurgiakoak. Medikuntzako aretoan 89 ohe zeuden, eta 85 kirurgiakoan. Gainera, bazegoen sei oheko logela bat ofizialentzat. Ospitale honetako lanpostuen artean aipagarriak dira, kirurgilari-sendagile Irakaslearen figura, halaber, kapelaua eta beste buruzagi militar batzu.

Badaukagu beraz, Done Antonio Abade Ospitalea, Konpainiaren eraikuntza zaharrean, abuztuaren 31 kalean, Trinitate kalea lehen, eta Misericordia Ospitalea San Martingo auzoan. Hala ere, biek guztiz autonomoki funtzionatzen zuten. Ospitaleak ez zuen inolako irabazirik, eta emaitza eta eskusariei esker mantentzen zen. Caracas-eko Erreal Gipuzkoar Konpainiaren garaian, bi ongintzetxeek emaitza oparoak jaso zituzten, kapital bat bildu ere. Naharotasun aroak izan ziren haiek, baina Caracas-eko Konpainiak beherakada jasaten hasi zenean, hiri guztiak nabaritu zuen, dagozkigun eraiketa hauek galera ekonomioak izan zituzten. Baina hau ezbeharren hasiera besterik ez zen izan, 1813.eko hiriaren sutearekin goraheldu zirelarik. Sutean Done Antonioko Ospitalea eta Misericordia Etxea suntsituko dira. Egoera, beraz, guztiz tamalgarria geratu zen instituzio hauentzako, eta, era berean, hiri oroentzako, dena berraitkitzen ahalegintzen zirelarik. Ez daukate gaixoak eta txiroak non babestu, horregatik, bien administrari eta Udaletxeen artean, bi instituzioak, Ospitalea eta Misericordia, batean batzea erabakitzen da. Eta horrelaxe gertatuko da 1814.eko irailaren 7an, fondo bakar bat sortzen da bientzat, eta lehen Misericordia zen eraikuntza berri eta haunditu egingo dute. Ospitale berri honentzako dirulaguntzak jasotzeko asmotan, Udaletxeak, ardoari, pattarrari, txerri-kei, azoka postuei, e.a., zerga bereziak inposatzen dizkie. Hori dela ta, egoera

asko hobetu zen, eta erreformak eta zabalketak egitea izan zuten. 1814.etik aurrera hiri berpiztuko da eta 13. urteko hondamenetik zuzpertzuko da.

Baina, berriro, beste setio bat nozituko du, 1823.ekoa, frantsesak Angulemako Dukearen aginpean iristean. “San Luisen ehun semeak” izenarekin ezagutzen zaio ejerzito honi. Hiriak asko sufrutuko du: irakur dezagun, zer zioen horretaz garaiko testu batek:

“Dena zapuzturik geratu zen 1823an, arrantzaleak bizitzeko lain arrain ateratzeko besterik ez zegoen; marinela, beraien kanoa arrunt ezik, beste inolako itsasuntzirik erabiltzen ez duten pazifikoko irلاتarrek gonparagarriak, eta kapitalduna hondamenezko motelkeri batetara behartua. Era berean, berraitkiko alderdi guztia frantses gudariak desegin zutelarik.”

Setioan, San Martingo eraikuntzak, Miserikordia eta Ospitalea zena, suntsiketa serioa pairatu zuen, berriro zalantzan ikusi zelarik instituzio hauen iraupena berriro jo behar izan zuten emaitzetara, eta Udaletxeak ipin zitzakeen zergetara, ea nolabait aurrera egin zezaketen.

Daukagu bada, oraindik Ospitalea eta Miserikordia elkaturik eta kalteturik, azkenengo setioaren ondorioz, 1823.ekoa, San Martingo auzoan. Arruti Doktoarearen aipaturiko eskuizkribuari esker, Granjel Irakasleak faksimilen argitaratua, Donostiaren egoera 1826an ezagutzeko balore haundiko dokumentu bat daukagu. “Donostia hiriko Deskribapen topografiko-medikoa” deritzan lan honek hiri sakonki ezagutzeko dato ugari ditu, eta idazlea sendagilea den einean, sanital egoeraz informatzen gaitu eta ospitaleak deskribatzen ditu. Merezi du zentro hauen berri jakiteak:

“Miserikordia eta Ospitalaren eraikuntza elkartua jarraitzen du, San Bartolome muinoaren hasieraren pean, San Martingo auzoan, itsas, hiri, eta kaia aurrean. Edifizio hau, 1813ko setioan kiskali zen, eta aireaketa eta erregulartasun egokiren batez, ekialdekoa eta iparraldekoa altxa zen.”

Kanpoaldea, arboladun zelai bat dagoela dio, erdialdean kapila bat, bertan eriak paseiatzen direlarik. Arruti Jaunak dioenez, barruan medikuntza areto bat zegoen gizonentzako, 19 ohez, eta beste bat emakumeentzat 16 ohez. Halaber, bazeuden bi kirurgi gela: bat gizonentzakoentzat, sei ohez, eta bestea emakumeentzat, zazpi ohez. Gaineratzen du: “badago sei ohe duen gela bereizi bat zaragartsuentzat, eta zortzi oheko beste bat, banapena edo behar duten gaixotasunentzat”.

Denetara, hirurogei ohe zeuden Ospitalean, botikaleku bat, eta beste zenbait gela Kapelau, Sendagile eta langileentzat bakarrik. Pertsona taldea, kapelauak, ama ekonomika batek, zenbait neskamek, erizain batek, eta atezainak osatzen zuten. Diotenez, gaixoei ematen zaien trataera ardurazkoa da, elikadura zatia osatzen zuten: hiru laurden ogi zuri, liberdi bat haragi, eta laurdentxo bat ardo. Baina sendagileek askatasunez alda dezakete dieta hau. Sendagile betebeharrak, udaletxeko medikuek betetzen zituzten, udaletxearekin zuten akordio baten bidez Ospitalea txandaka atenditzeko betebeharra bait zuten. Ospitalearen zuzendaritza hiriko zenbait merkatarik eta nagusi Jaunez osaturiko Batzarre baten eskutan zegoen. Instituzio honek hartzen zuen diruaren zati garrantzitsu bat, itsasuntziak kaian sartzeari ordaintzen zutenetik zetorren. Baina Arruti Doktoarek esaten du, merkatalgoa erori eta establezimendu honen egoera ekonomikoa larri jartzen dela.

Larritasun ekonomiko honek Ospitalearen Estatutoak aldatzeko beharra ikus arazi zuen, Estatuto horiek 1787.ekoak ziren. Honela, 1832ko abenduaren

23an, Udal Korporazioak Miserikordia eta Ospitalarentzat balio zuen arategi berri bat onartu zuen. Ospitalearen nagusi bakarra hiria izaten jarraitzen zuen. Gobernu Batzarra, Alkateak, agindari batek, eta epe mugagabez herriak hautatutako hamabi bokalek osatzen zuten. Gauza berri batzu ere badaude, adibidez, Ama ekonomikaren figura desagertzen dela, eta horren ordez Karitatearen Alabak, bederatzi monjek, zainduko dituztela gaixoak eta instituzioaren barne antolaketa egingo dutela.

1834.ean esaten digute, Ospitalean medikuntza eta kirurgia aretoak batuz, berrogei bat gaixo egoten direla, batez ere medikuntzakoak direlarik. Denetara urtero 14.600 egonaldi egoten direla, egonaldi bakoitzak bost “vellón” erreale kostatzen zuelarik. Beste datu ere badaude: oheak burdinezkoak ziren, bi sendagilek lan egiten zuten, bata kirurgilari titularra eta bestea soldatapekoa... Urte hartan Ospitalean egon zen mugimendua ondorengo hau izan zen: 178 sarrera egin ziren, horietatik 68 gizonaekoak, 99 emakumeak eta 11 haur; hildakoak denetara 46 izan ziren (17 gizon, 28 emakume eta ume bat); 90 sendatu ziren (32 gizon, 48 emakume eta 10 ume); eta urteko abenduaren 31.ean 42 pertsonak jarraitzen zuten Ospitalean (19 gizonaeko eta 23 emakume).

Oso aipagarria iruditzen zaigu, 1834.ean San Martin Hauzoko Ospitalea gutxiegi edo eskas kontsideratzen dela, izugarriko eskaera bait dago, eta komenigarria dirudiela Gobernuak onar dezan Ospitale eta Miserikordiaren aldaketa San Franzizkoko Komentu zabalera. Halaxe gertatu zen; ikusiko dugunez, 1841.ean aldatu ziren.

XIX. mendean zehar Donostian, batez ere, bi osasun krisialdi larri suertatu ziren; hiriak pairatu zituen bi izurriteez ari gara. Eta, osasun krisialdi guztitan gertatzen den bezalaxe, kolera gaixoentzat zenbait ospitale sortzeko beharra egon zen.

Hiriak ezagutu zuen lehenengo kolera izurritea 1834an eman zen (noski joan den mendez dihardugula). Orduan koleradunentzako ospitale bat eraikitzeko beharren egon ziren. Urriaren Sean ireki zen eta Karitateko Ahizpak eramaten zuten. Guzti honekin, Done Antonio Abade Ospitalean kolera gaixorik sar ez zedin nahi izan zen, baina hutsegite bat jazo zen, eta kolera gaixo bat San Martingo Ospitalean hil zen izurritea bertan hedatu zelarik. Horren ondorioz, afektatuak ez zeuden gaixoak eta behartsuak, San Bartolomeko Monastegira eramanak izan ziren. Kolera gaixoentzako prestatutako Ospitaleak, hesiz kanpokoak, gutxi gora behera bi hilabete t'ardi edo hiru iraun zuen, abenduaren bukaera aldera itxi bait zen, izurritea gainditua zegoelarik.

Gaitz berdineko beste izurritea, Espainian 1854.ean zenbait kasu eman zuena, Donostiara urte bete beranduago iritsi zen, 1855ean. Abuztuaren 24an lehenengo kasuak azaltzen dira, bederatzi bat, San Martingo auzoko kolera gaixoentzako ospitale batetara, posta maisuaren eraikuntzara, eramanak izango dira. Izurriteak indarrez joko du, batez ere, Done Antonio Abade Ospitalean, lehen San Franzizkoren Komentua zegoen tokira aldatua, Atotxatik gertu. Bestalde, zenbait etxebizitza partikularrak gaixoentzako asmatzen dira, besteak beste: Loyola auzoan dagoen “Elkano” etxaldea, eta Urdinzoko etxea. Zezen plaza ere prestatu zen. 1855.eko izurrite hau nahiko hilgarria izan zen, abuztuaren azkenaldetik azaroaren hasiera arte iraun zuen.

Denboran zehar, 1834. eta 1835. artean, Miserikordiarekin batera, San Martingo auzoan dagoen Done Antonio Abad Ospitalaren historia jarraituz,

1835.eko azaroan gelditu behar dugu. Data honetan Donostiak blokeo berri bat jasaten bait du lehenengo Karlistada dela eta. Hiriak pairatzen duen setioa ikaragarria da, eta hesiz kanpo eta barne arteko komunikazio guztia mozten dute. Hau, ospitaleei dagokienez, oso garrantzitsua da, hesiz barruko gaixoak ezin bait dira San Martingo auzoko Ospitalera iritsi, daukaten bakarra delarik. Hori ikusita, behin behineko ospitale bat asmatzen da hesiz barru, San Jeronimo kaleko 10.ean, plaza izkinean. hiriko alkatearena zen etxe galant batean.

Ospitale hau, 1835.eko abendutik 1836.eko Ekainara arte erabili zen.

Bestalde, hesiz kanpoko egoera ez da hobeagoa. San Martin auzoko Miserikordia eta Ospitalea karlisten eskutan dago. Hauek, eraikuntzak hutsarazten dituzte, eta monjek eta gaixoeak, Loyola auzoko zenbait etxetara (Ad. Urdinzo), aldatu behar izaten dute. Gainera, inguruko Hernani herrian, hamabi oheko ospitaletxo bat asmatzera behartzen dituzte. Geroxeago aldaketa berriak egongo dira: Miserikordia, Ospitalearen edifiziotik banatzen da eta Pasajes Kaltzadan antzinean “Villa Casilda”, egun Beltran-go Juan Jauregian ezartzen dira. Ospitalea, “Moneda” izena duen Ategorrieta alderdiko baserri batetara aldatzen da; denbora gutxitara, egokia ez dela konturatuko dira, eta alderdi berdinean beste etxalde bat hartuko dute, “Caseria Baderas” izenekoa. Etxe hau geroago Anglet Ikastetxea izango da, eta gaur egun “Notre-Dame” Ikastetxea da. Toki honetan zegoelarik Ospitalea, hau da “Baderas”-en, ondoan; “Argiñena” etxea gaixoardiondorentzat prestatu zuten. 1837.etik aurrera bada, Ospitalea “Baderas”-en zegoen, “Argiñena” gaixoardiondoren etxeaz zuelarik; eta Miserikordia Beltran-go Juan Jauregian. Horrela jarraitu zuen egoera 1841.era arte, noiz bi eraiketak berriro elkartu bait ziren edifizio berri batean, San Franzisko Komentua lekutua zen tokian. Honekin geroxeago jarraituko dugu. Bitartean, zer gertatu ote zitzaion karlisten menpean zegoen San Martingo eraikuntzari? Denboraldi labur batetan, Militar Ospitalea izan zen, eta ondoren gaixotasun kutsakorrenzat erabili zuten, nafarrerria gaixoentzat batik bat, 1842.ean hirian eragin handia izan bait zuen.

### **Done Antonio Abade Ospitalea, San Franzisko Komentu zaharrean**

San Franzisko Komentua, XVII. mendean eraiki zuten, Urumea ibaiaren eskuinaldeko ertzean. 1836an suntsitua izan zen, eta, 1840ko ekainaren 22an, Isabel II.a erregina zelarik, hondamen gaian Ospitalea eta Miserikordia etxea eraikitzen hasi ziren. Ikus dezagun nola deskribatzen duen Arruti Jaunak Komentua eta bere ingurua herrausketa baino lehen, aurretik aipatu dugun hiriaren Deskribapen horretan:

“Ekialderuntz mila makila urrunera, San Franzisko Komentua dago. Hala eraikuntza nola eliza, oso ederrak dira. Baratze haundi bat du, eta edateko ur iturri bat dute sukaldean. Leku ikusgarrian kokatzen da, itsas eta hiri arteko bidean bait dago, eta han hasten delarik udako ibiltokia.”

Beraz, txoko honetan altxatzen dituzte, eraikuntza berean Miserikordia eta Ospitalea 1840an. Hasera batetan, Joakin Ramon Etxebeste Jaunak egin zuen proiektu batetan, Militar Ospitalea ere bertan lekutzea pentsatu zen; ideia hori baztertu egin zen, aurreikustean arazoak egon litezkeela militar eta hospizioko jende artean.



Deskriba dezagun bada, eraikuntza hau. Dauzkagun datuak Madoz-en Hiztegikoak direla adierazten dizuet, Madoz-ek Ospitale hau, bere motakoeren artean eredugarritzat hartzen duelarik, eta ez duelarik laudoriorik gordetzen.

Errektangelu baten trazatua du, bere alde txikiak, hiru garaierakoak, Ospitalea lirateke; hondoko alde handiena Hospiziorako, lau solairukoa: behekoan sukaldea, jangela, arropa gelak, e.a. eta besteetan logelak, erdialdekoak Monjentzat, eskuinaldean emakumezkoak, eta ezkeraldean gizonezkoak. Lau-garren alderdiak aurrekaldean bazeukan zati baju bat, erdialdean sarrera gisa, eta alboetan eskola, botika eta langile gela gisa prestatuta zeudelarik. Kapila eta patio inguruan aterpeak zeuden.

Aurrekaldetik, beraz lehengo gauza, sarrera zeukan zati bajuago bat ikus zitekeen. Barruan, harmaila batzuk goiko solairura eramaten zuten, horien gainean zutabe batzu zeuden eta aurrez aurre esfera bikoitzeko erloju bat eta kanpai handi bat. Esfera bat kanporuntz zegoen, eta bestea barruko patioruntz; bazegoen ere honela zioen harri bat: “Gaixo eta behartsuei, ongintza publikoak”.

Atalondoa handia eta zabala zen. Hondoan burdinsare batez itxita. Alboetako aurrealdean bi ate zeuden: bata kapelau gela, irakasle gela, eskola eta botikara ematen zuena; eta bestaldekoa, kapilako atea zen. Kapilak tribunak zituen, goikoa gaixoentzako eta bestea gainontzekoentzat.

Atalondotik, hondoaldera, atezaindaritza igarota, patio handi batetara heltzen zen, patioak jardina eta larogei zutabeko aterpea zuen. Aterpe gainean azotea bat sortzen zen, solairu nagusiaren parean.

Eskuineko zatia edo alderdia, Ospitaleko aretoek betetzen zuten, solairu bakoitzeko bi. Aretoak, solairu bakoitzean, eskilaraz eta aretoaurre komun batez zatituta zeuden. Bakoitzak, 88 oin luzeraz, 28 zabaleraz, eta 14 garaieraz, zuen. Areto askeak ziren, holtzik gabekoak, alboetan luzetara sei leiho, eta frentean hiru, eta hauen aurrez aurre, sarrera atea.

Beste eraikuntza txiki batzu ere bazeuden, baina denak deskribatzea oso luze egin ziteke zitaigularik, esan dezagun orokorki, ikuztokia, harraska, ikuiluak, e.a. zeudela. Multzo guztia, aurrekaldea ezik, baratzez inguratutik zegoen. Baratze batetan, Ospitalaren erabilerako izain gordeleku bat dagoela diote. Jangelak deskribapen bat merezi du, han bait dago Manuel Zabaleta Jaunaren busto bat. Berak, bere ondasunak, 45.000 hogerleko balio izan zuen eraikuntza hau egiteko utzi zuen eta.

Ospitale honetan, ehun bat gaixoentzat zegoen tokia, baina larrialdietan, bikoiztu zitekeen. 1845.ean, 90etik 100era gaixo zegoela dakigu, eta horietatik, 60 kanpotarrak ziren. Horregatik, esan liteke udal ospitale baino probintziarra zela.

Oro har, establezimenduak, 7.200 “zarta” kuadratu hartzen zituenen. Misericordia Ospitalea oso txiroa zen, irabaziak, batez ere, emaitza eta zergetatik zetozen. Adibide bat emateko, 1849.ean 195.000 hogerlekoko gastuak izan zituzten, eta irabaziak 140.000 hogerlekokoak, beraz 55.000ko galerak izan zituzten, hau urtero ohizkoa zelarik.

Eman dezakegun beste garrantzizko datu bat, hilkortasuna ez dela altua da; batez ere, 70 urte baino gehiagoko pertsona adintsuak hiltzen zirelarik, eta datu berezi moduan, 1849.eko ekainaren 24an, Donostiako emakume bat 103 urte zituela hil zen. 1845.eko udazkenean, 16 eta 24 bitarteko gazteak hil zituen izurrite gaitz bat sortu zen hirian, sukar edo izerdi militarra deitu

zitzaion. Baina, Ospitalean ingresaturik zeudenetatik, 56 bat neskame, ez zen inor hil.

Ospitaleko sendagile titularra, Franzizko Urdangarin Jauna zen.

## MANTEO-KO OSPITALEA

Dakigunez, 1840.etik, Ospitalea Miserikordiarekin batera, San Franzizkoko Komentu zaharrean zegoen kokatua. Baina, laister, egoera hau aldatzeko beharra ikusiko dute. Batetik, Ospitalea eta Miserikordia banatu nahi zituzten, askeak izan zitezten, bestetik, dagoeneko Ospitalea hiriaren beharretarako txikia gelditzen ari zen. Hasera batean, posibilitate edo proiektu hauek azaldu ziren:

1. Ospitalea handiagotzea, Atotxa auzoan mantenduz.

2. Berri bat eraikitzea Olivasena-n (gaur egun, Onkologikoa eta San Antonio Klinika artean, legoke).

3. San Franzizko etxea soilki Ospitale gisa uztea, eta lurzati bat erostea, Santa Katalina zubia eta errepidearen ondoan, eta han Miserikordia eraikitzea. Lurzati horren alde bat Likore Fabrika batek, zenbait etxek, eta Ramon Mujika Jaunaren zurgintza lantegiak (gaur egun Atotxako futbol-zelaia liteke), betetzen zuten jadanik.

Zalantzarik gabe, Ospitalea lokabea, hiribarrutik kanpo eta urrun eraikitzea zen, hiritarren nahia. Oso oroimen txarra bait zuten San Martingo eta Militar Ospitaleez, zoldura sorgune, nafarreriarrena batez ere, zirelako.

Aukera guztien artean, Ospitale berria eraikitzearena gainditzen zen; baina, proiektua amaitu ondoren, Ongintza Batzarreak ez zeukan egiteko behar adina diru. 1877an, Ospitale berri bat eraikitzeko ideia berriro aipatzen da, baina oraingo honetan soilik zoldurakorrentzat. Proiektu hau, ospitale handi bat eraikitzearena baino merkeagoa, onartuko du Udaleetxeak. Ulia auzoan, hiritik kilometru batzutara, pinudi batean ezarriko da. Proiektua, 77.294 pezeta balio zuena, Jose Goikoa Arkitektoak egina da, baina, lurren jabea proiektuaren aurka jarri zen, eta ezin izan zuten inola ere desjabetu. Aurrera jarraituz, 1881.ean beste proiektu bat dago, Manteo baserria zegoen lurraldetan egitea ospitalea. Bere baldintza ezinobeengatik aukeratu zuen lurzati hau Goikoa arkitektoak. Manteo baserria eta bere ingurua, Inazio Arzamendi Jaunak bikainki deskribatzen ditu, Okendo Almiranteari buruzko biografia eder batean:

“Ulia mendipean, Kantauri itsas harroak besarkaturiko hondartegiz inguratutik dagoen eraikuntza zaharra. Bazterralde bakarti honetatik pausu gutxitara, Urumea ibaiak, bere urak mantsoki eskeintzen dizkio itsasoari. Haize erauntsituak, eta itsasoko gezal apartsuak, etxauntza arrumaren (XVI. mendeko Manteo-az ari da) ormak agurtzen dituzte. Bere alboetan, esparru txikitik, baratze eta mahastiak ikus daitezke. Mendi alderuntz hurbilduz, zenbait sagasti eta soro, ia ‘Miralles’ deritzan puntaraino heltzen dira. Geroago, Okendo-ko Miguel Jaunak lortutako maila zela eta, senidarte haren oinordekoak, lehen baserri xumea zegoen lekuan jauregi berri bat eraikiz, bere ondorengoei famili sustraia utzi nahi izan zien.”

Alderdi horretan bada, Goikoaren planuak jarraituz, altxako da Ospitale berria. Aurrekontua 333.836 pezeta baino gehiagokoa zen, eta Batzarreak, noski, ez zuen inolaz ere, kopuru hori. Oso luze egingo zitzaigun, proiektuari

baimena emateko Udaletxe eta Ongintza Batzordearen arteko iztiluaren kontu ematea. Eta, gaur egun ere, oraindik ez dago batere argi zein lur diren Udaletxearenak, eta zein Batzordearenak. Manteoko lurraldeak erostea ere ez zen lan erraza izan, haseran nagusia, Sangarren Baroia, desjabetu zuten, baina azkenean akordio batetara iritsi ziren, lurraldeen uzketa onartu zelarik. Goikoa arkitektoaren lehenengo proiektuan aldaketa berriak egin ziren, aurrekontua 576.102 pezetatara igoz. Honek Udaletxe eta Patronatu Batzordearen arteko hauzi berria ekarri zuen, erabakitzeko norik hartu behar zuen gain igoera berria, baina berriro adostasunera heldu ziren, eta azkenik, Ospitalaren eraikuntza lanak, Ramon Mujikari adjudikatu ondoren, 1883.eko otsailean hasi ziren.

Ospitalea eratzeko onetsi zen egitura pabeloi luze paraleluna izan zen. Barrukaldetik zerbitzu orokorren zatiak prestatuko zen zabalgunen baten inguruan hedatuko ziren pabeloi horiek. Horretaz, Goikoak adierazi zuen: “Ospitale bat egiterakoan, arazo nagusia, gaixoen ahalik eta banaketa handiena egitean eta, era berean, zerbitzu simpleenak lortzean datza; horregatik, pabeloi isladatak adarretan elkartuak, denen artean eraketa egokiena litzateke”.

Proiektuan, batez ere argia eta aireaketa zegoenez, mota honetako eraikuntzentzat 1862.ean, Husson-ek, Paris-eko Osasun Publikoaren Administrazioa zuzendariak, emandako aholkuak hartu zituen kontuan; halaber, antzeko itsasoarekiko hurbiltasunagatik, Napoleon III.ak agindutako Berek-eko Ospitalea “sur mer”.

Eraikuntza lanetan, erabili zuten: zimenduetan hormigoia; Motrikuko harrobiek erakertzen zuten kareharritzko manposteria gainetik porlan hidraulikoz zuritua ormetan; eta egurra solu eta gapirioetan. Edertasuna eta ekonomia bateratu behar zirela eta, aurrekaldetan materiale aberatsak ezin izan zituzten erabili, izan behar bait zuen: “soberantzia erori gabe, proportzioetan izaera armoniko bat”.

Aurrekaldea hegoalderuntz zegoen, Ulia mendira zeraman bidez eta Iruerako errepidez mugaturik. Aurrekalde horretan, ikus zitekeen harmarri itzel bat, eta fatxada nagusi honen alboetan medikuntza eta kirurgia pabeloiak, besteak baino handiagoak. Eraikuntza guztiaren soiltasuna, inolako apaingarriarik eza, sarrera honetan igartzen zen. Salbuespena doriko estiloko bost zutabe haundi ziren, Goikoa Jaunak bere lanean zehar hautatutako klasizismoaren ondorioa.

1887.eko urriaren 24an egin zen lehenengo gaixo aldaketa, urrengo egunetan gehiagotuz. 1888.eko urtarrilaren 20an ospatu zen inauguraketa (Donostia-ko eguna). Ohizkoa denez, martxan jartzean, zenbait akats azaldu ziren, piskanaka konpondu ere. Denbora joanez, hobekuntzak egin zituzten, adibidez, telefono zerbitzua, gas sarrera hobea, eta orokorrean azaltzen ziren aurrerapen guztiak.

Laburtuz, esango dugu, Ospitaleak bi alderdi independente zituela, biak zirkuitu berean zeuden arren: bata, leku txikiena betetzen zuena, zoldurakorren zatiak (kutsakorrak); bestea, handiena ospitale orokorra litzateke: medikuntza sailak, kirurgia, amategia, sexugaitz gaixoak eta ero gaixoak.

Sendagile talde bi sendagilez osaturik zegoen. Bata, fakultatiboa, Ospitaleko titularra demagun, Galo Aristizabal Doktorea zen; bestea, sendagile laguntzailea, kontratatu berria zen: Luis Alzua Doktorea. Hau, Ospitalean bizi zen, larrialdiak atzartzen zituen, egunero barneko gaixoak ikustatzen zituen, eta

urtero memoria bat egin behar zuen ezinbestezko berrikuntzak aipatuz. Urteko, 2.000 pezetatako soldata jasotzen zuen. Luis Alzua Doktorea 1887.eko urriaren 13an hasi zen lanean. Sasoi berean, botikari plaza atera zen, eta Manuel Ruiz de Eguino Jaunak bete zuen.

Ospitaleko kapelaua Pedro Mata Jauna zen. 1885ean, hirian kolera kasu batzu azaldu zirenean, Ospitalean izurrite pabeloian bere baldingabeko laguntza eskeini zuenetik, Ospitalean gelditu zen. Ospitaleaz arduratzen ziren monjak, Karitatearen Alabak ziren.

Beraz, Ospitalearen Historia 1888. inguruan, inauguraketa urtean, hasten da. Ospitale donostiarra eta probintziarra izan zen 1960ra arte, 75 bat urte lan egin zuen bada. Bere Historia ez dago oraindik idatzia, gaur egun horretan dihardut. Manteo-ko Ospitalea, 1960.etik gutxira suntsitu zuten, eta ondoreko orabea, zati bat oraindik mantentzen da, Nafarroako Hiribidea zabaltzeko erabili zuten.

## BIBLIOGRAFIA

- BARRIOLA IRIGOYEN, Ignacio M.<sup>a</sup>: *La medicina donostiarra a comienzos del siglo XIX: San Sebastián curso breve sobre la vida y milagros de una ciudad*. San Sebastián, 1964, págs. 225-36.
- BERASATEGI Y MONTES, Segundo: *Historia y situación actual de la beneficencia de San Sebastián*. San Sebastián, 1894.
- Diccionario Histórico-Geográfico del País Vasco*, 2.<sup>a</sup> edic. facsímil del Diccionario preparado por la Real Academia de la Historia, 1802; Bilbao, 1980.
- GRANJEL, Luis S.: *Una descripción de San Sebastián de 1826*, Salamanca, 1982.
- GRANJEL, Luis S.: *Historia de la Medicina Vasca*. Salamanca, 1983.
- MADOZ, Pascual: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España*, 3.<sup>a</sup> edic., 16 vols., Madrid, 1848-1850.
- MUGICA, Serapio: *Las calles de San Sebastián*. San Sebastián, 1965.
- ORDOÑEZ, Joaquín: *San Sebastián en 1761, descripción de la ciudad, sus monumentos, usos y costumbres*. San Sebastián, 1963.
- PLACER GALAN, Carlos: *El ejercicio profesional de médicos y cirujanos en San Sebastián durante el siglo XIX*. Tesis Doctoral, Universidad de Salamanca, 1990. (Garai hartan egon ziren ospitaleei buruzko aportaketa historiko baliotsu eta interesgarria).